

## GRANDES CAMPEONES DE LA PELOTA A MANO

Prólogo de Miguel Gallastegui

Santiago Agirre



2ª edición

>> LITERATURA

# SANTIREN EROKERIA

*Eskupilotaren inguruan jakin-min handia izan du beti Santi Agirre deustuarrak. Informazio bila hasi zenean oso argitalpen gutxi dagoela konturatu zen. Orduan erabaki zuen ikerketa abiaraztea, duela bi hile liburu bihurtu zena.*

Testua: Lur Mallea Argazkiak; Ediciones Beta / Santi Agirre

"Zoragarria" izan da *Grandes campeones de la pelota mano* (Ediciones Beta, 2013) liburua-ekin gertatutakoa, "zentzu guztietan", dio Santi Agirrek. Izan ere, bere lehen liburua-aren bigarren edizioa agortzeaz dago. "Ezin hobeto irten da dena", Gorputz Heziketako lizentziatu deustuarrarentzat. Bere ametsa bete du Santik. "Nik buruz buruko eskupilota txapeldunak ezagutu nahi nuen, beraiekin egon eta argazki bana egin". Eta lortu du, bai, 1940an txapelketa ofizialki abiarazi zenetik, bizirik dauden 20 txapeldun handiak elkarriketatzea (bost hilda daude)

eta euren bizipenak lan txukun batean argitaratzea.

Retegi II eta Ladis Galarzaren arteko norgehiagoka garaian pilotazaletu zen Santi Agirre. Etxean, bere aita ere oso zalea izan da betidanik. Aita bera izan du laguntzaile liburua-ren "abentura ero honetan". Biak ibili dira pilotariak bisitatzen eta pilotariak galdekatzeko. Horregatik semeei bezala aitari ere eskaini nahi izan dio Santik liburua

2011ko irailean ekin zion dokumentazio lanari Bizkaiko foru liburuetan, Lehenago ere asko irakurrita zegoen aspaldiko final

eta pilotari handien inguruan. Duela 30, 40, 50, 60 urteko prentsa irakurrita "zein jende interesgarria, zergatik ez beraiekin hitz egin", pentsatu zuen, eta saiatzea erabaki zuen. Lagun baten bitartez egin zuen lehen kontaktua Hilario Azkarate txapeldun bizkaitarrarekin (elkarriketatuta eta zortzi hilera hil zen). "Oso egun ederra" eman zuen Elorrioren Azkaraterekin eta, lehen pauso hura eman eta gero, aurrera egin eta "txapeldun guztiekin" hitz egitea otu zitzaion.

Liburuaren ideia Juan Igancio Retegik (Retegi I) proposatu zion. Orduak hizketan eman eta

## CEP SAN INAZIO LHI

ZURE IKASTETXE PUBLIKOA / 2 URTETIK AURRERA / D EREDUA  
ATE IREKIEN EGUNA: Otsailak 7, zatoz gu ezagutzera!

Kantabria 2, 48015 Bilbo. Tel: 944758364

014924aa@hezkuntza.net / www.sanieskola.blogspot.com



## harkua bete herba

gero "polita geratuko da liburu batean", bota zion Santiri.

Liburua kaleratzeko argitaletxea aurkitzea prozesu luzea izan da, urte erdikoa. Hamaika argitaletzetatik pasa zen eta denek gauza bera erantzun zioten: "Zein interesgarria, baina gaur egun ezinezko da, duela bost urte etorri izan bazina...", harik eta Deustuko Ediciones Betara heldu zen arte. "Argitaletxe txikia dira, oso harreman estua sortu dugu; ezin pozago nago emaitzarekin".

Errespetu handiz idatzi du Santik eskupilotako txapeldunei buruz. "Kirol txikia da eskupilota, oso gurea. Txapeldun denek oso ondo tratatu naute, harrizta utzi naute, eta hori ere islatu nahi nuen. Nire errespetua agertu nahi nien".

Orriak pasa eta pasa, 75 urtetan eskupilotak izan duen garapenez ohartzen da irakurlea. Hasi frontoien koloretik eta pilotarien uniformera edota eskuetako babesgarrietara, aurrerapena sekulakoa da. Erraz eta gustura irakurtzen dira txapeldunen anekdotak eta oroitzapenak, irakurlearen batek aitortu duenez, "hasi eta, nahi gabe, bukatu du liburua irakurtzen".



## ELKAR ZAITEZ GUREKIN

Denboraldi berriari egin zaitez bazkide

P6

PABLOI E  
DEUSTU 2020-21  
40214 91000  
www.paboi.net